



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko maiatzaren 13a

56. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—“Reyno de Navarra Arena” kiroldagiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**“Reyno de Navarra Arena” kiroldegiari buruzko fiskalizazio txostena,
Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko apirilaren 14an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako “Reyno de Navarra Arena” kiroldegiari buruzko fiskalizazio txostena, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**“Reyno de Navarra Arena” kiroldegiari buruzko fiskalizazio txostena,
Kontuen Ganberak egina**

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Reyno de Navarra Arena kiroldegia (3. or.).

II.1. Kiroldegiaren orubea (3. or.).

II.2. Kiroldegirako aurreikusi diren ezaugarri teknikoak (4. or.).

II.3. Kiroldegiaren eraikuntza-lanen egitura-tzea. (6. or.).

II.4. Aurreikusitako negozio- eta kudeaketa-eredua (9. or.).

III. Helburua eta norainokoa (11. or.).

IV. Ondorioak (12. or.).

IV.1. “Reyno de Navarra Arena” kiroldegiaren aurrekariak eta aurreikuspenak (12. or.).

IV.2. Kiroldegiaren eraikuntza-prozesuaren egoera 2014ko abenduaren 31n (13. or.).

IV.3. Aurrekontu-gastuak eta -diru-sarrerak, 2014ko abenduaren 31ra arte (14. or.).

IV.4. Kiroldegiko inbertsioaren gastu garbia, 2014ko abenduaren 31n (16. or.).

IV.5. Esleipenen legezketasuna eta haien exekuzioaren gaineko kontrola (16. or.).

IV.6. Kontserbazio- eta mantentze-gastuak (19. or.).

IV.7. Negozio- eta kudeaketa-eredua (21. or.).

IV.8. Kiroldegiaren kudeaketa-ereduari buruzko aukeren azterketa (22. or.).

IV.9. Amaierako ondorioa (23. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (25. or.).

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren zuzendari kudeatzaileak aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganbarak emandako erantzuna (26. or.).

I. SARRERA

2014ko irailean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak eskatuta, Kontuen Ganberari eskatzea fiskalizazio txosten bat egin zezan, "Reyno de Navarra Arena" kiroldegia buruz.

Eskari horretan, Kontuen Ganberari eskatzen zitzaion, zehazki, txosten bat egin zezan *"Reyno Arena kiroldegia buruz –ikuspuntua ekonomikotik, kontratazio-prozesuen legezkotasunaren ikuspuntutik eta bideragarritasun planen zorrotasunaren ikuspuntutik– eta azter zezan, bidezkotzat eta bere eginkizunen arabera kotzat joz gero, instalazio hori kudeatzeko zein aukera dauden, diru-kutxa publikoentzat baliagarrien eta gutxien kaltegarri gerta dadin.*

Eskari hori betetzeko, Ganbera honen 2014ko fiskalizazio-programan sartu zen aipatutako lana egitea.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrenean, azpiegitura horretarako aurreikusitako ezaugarri nagusiak erakusten ditugu; hirugarrenean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa aurkezten ditugu. Azkenik, laugarrenean, gure lanean lortutako ondorioak azaltzen ditugu.

Beste ezer baino lehen, zehaztu beharra dago txosten hau idazteko datan ez dela amaitu kiroldegiaren eraikuntza, eta ez dagoela hura irekitzeko datarik; haren kudeaketa eredia ere zehaztu gabe dago.

Txostenean aipatzen diren kopuru guztiek BEZarekin dira.

Azterketa-lana 2014ko urritik 2015eko urtarrilera bitartean egin du auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako talde batek, eta Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzan ere izan dute.

Eskertu egin nahi dugu Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko langileek lan hau egiteko eskaintako laguntza.

II. REYNO DE NAVARRA ARENA KIROLDEGIA

Atal honetan aztertzen dira bai kiroldegia eraiki den orubearen baldintzak, bai kiroldegiaren ezaugarriei, egituratzeari eta eraikuntza-programazioari buruz, eta negozio- eta kudeaketa-ereduari buruz, dauden aurreikuspenak ere.

II.1. KIROLDEGIAREN ORUBEA

Club Atlético Osasunak proposatuta, 2008ko martxoan, Iruñeko Udalak futbol estadioa –Sadar–, antzinako kirol instalazioak eta "Sadarcillo" izenarekin ezagutzen den eremua osatzen duten lursailen hirigintza-aldaketa bat onetsi zuen (guztiak ere XXIII. unitate integratuko ZNO1 eremuan daude). Laburbilduz, onetsi zen hirigintza-aldaketak eragina zuen 90.166 m²-ko unitate batean, zeinak udal planaren barruan "kirol zuzkidura pribatuaren" kalifikazioa baitzuen. Hartan, beste erabilera batzuk baimentzen dira; esate baterako, balio anitzeko ekipamendu publiko bat eta jarduera ekonomikorako eremu bat.

Nabarmentzekoa da aldaketa horrek aldarazi egiten duela Club Atlético Osasunaren antzinako kirol instalazioen erabilera, eta futbol estadioaren erabilere, berriz, eutsi egiten zaiela eta zabaldu ere egiten direla. Aurkeztutako proposamenean aldaketa hori justifikatzen da esanez *"kasuko diru-sarreraren sorreraren helburu bakarra dela Club Atlético Osasunaren kirol jarduerak finantzatzea..."*

Aipatutako aldaketan esaten da, era berean, unitate osorako birzatatze- eta urbanizazio-proiektu bakarra egiten dela; dokumentu horiek 2009ko apirilean eta ekainean, hurrenez hurren, onetsi zituen Udalak.

Birzatatzearen arabera, aipatutako unitatea hiru lursailetan garatzen da, bai eta oinezkoentzako bide eta eremuetan ere:

- 22.475 m²-ko lursaila, gaur egun Sadar futbol zelaiak betetzen duena. Futbol klubaren jabetzako da. Haren erabilera "kirol zuzkidura pribatua-estadioa" da, eta erabilera osagarri edo/eta beha-

rrizko batzuk ere baimentzen dira: ostalaritza, merkataritza eta bulegoak. Lursail hori hiri-lurzoru finkatu gisa sailkatzen da.

- 9.832 m²-ko lursail bat, eremu ekonomiko¹ bat garatzeko, honako erabilera baimenduekin: aldi baterako bizitokia, asistentziala, bulegoak, merkataritza eta garajea-aparkalekuak. Lursail hori hiri-lurzoru ez-finkatu gisa sailkatzen da eta, hirigintza-aldaketak exijitzen zuen moduan, 2009ko otsailean Udalak aginduzkoa den xehetasun-azterlana onetsi zuen. Gaur egun, lursail hori honako azpialorretan banatuta dago: Club Atlético Osasunak lursail osoaren jabetzaren ehuneko 53,20 dauka; Iruñeko Udalak ehuneko 30,22 eta zenbait partikularrek ehuneko 16,58.

- Nahitaezko lagapeneko lursail bat, jabari eta erabilera publikoko lursail gisa sailkatua, zeinak "kirol zuzkidura publikoa-estadioa" erabilera izanen duen. 20.000 m² dauzka eta Iruñeko Udalarari dagokio. haren xedea kiroldegi bat egitea da. Halaber, erabilera osagarri edo/eta beharrezko batzuk baimentzen dira: ostalaritza, merkataritza eta bulegoak.

Gero, 2008ko irailean, Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak eta aipatutako futbol taldeak asmoen protokolo bat sinatu zuten, aipatutako kiroldegiaren eraikuntza errazteko. Honako asmoak aipatzen zituzten alde sinatzaileek:

- Club Atlético Osasuna, aldaketaren sustatzaile gisa, behar ziren dokumentuak aurkeztuko zituen planeamendua exekutatzen eta Gobernuari lursailak erabiltzeko moduan eskuratzeko.

- Iruñeko Udalak epe ahal den laburren zuzendutako zituen behar ziren espedienteak, unitatearen urbanizazio-lanak egite aldera. Gainera, legez bidezkoa zenean, Nafarroako Gobernuari kiroldegi egiteko lursaila lagako zion.

- Nafarroako Gobernuak behar ziren jarduketak guztiak egiten zituen kiroldegi eraiki eta funtzionamenduan jartzeko.

2009ko maiatzean, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Gobernu Giza Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea, Nafarroako Gobernuari eskuratzeko eta doan lagatzeko kiroldegi eraikitzen zuzkidura-lursaila. Gobernuak bere gain hartuko zituen lagapen hori formalizatzeko egin beharreko gastu guztiak. Ezartzen da, halaber, Iruñeko Udalak bere buruarentzat gordetzen duela kiroldegi doan erabiltzeko eskubidea, bere jarduketak batzuk sustatzeko urtean hainbat egunez (sei egunez pista handia eta bederatzi egunez pista osagarria); halaber, kiroldegi horretan egiten den edozein ekitaldian, VIP palko bat eta agintarien palkorako eta harmailetarako gonbidapenak edukiko ditu.

Maiatzean bertan, Nafarroako Gobernuak baimena eman zuen Nafarroako Gobernu Giza Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren arteko beste lankidetzaren hitzarmen bat egiteko, hain zuzen ere unitateko urbanizazio lanak egite aldera. Hartara, bermatu nahi da urbanizazio lanak eta kiroldegi eraikitzen lanak modu koordinatuan egiten direla, halako moduz non bi obrak batera amaituta, ekipamendua berehala jarri ahalko baita zerbitzuan, zuzen funtzionatzeko behar diren azpiegitura guztiekin.

Lankidetzaren bitarteko exekuzio sistema horren indarrez –unitatea garatzeko planeamendua finkatua da–, Iruñeko Udala da (Hirigintzako Gerentziaren bitartez) urbanizazio lanak exekutatzen duena, unitateko kideen kargura. Hala eta guztiz ere, arintasun, aldiberekotasun eta egokitasun arazoak tarteko, gomendagarri gertatu zen kiroldegi eta eremua urbanizatzeko lanak batera egitea. Hori dela eta, hitzartu zen, alde batetik, Nafarroako Gobernuak bere gain har dezala urbanizazio lanak exekuzioa, bai eta haren zuzendaritza tekniko fakultatiboa ere, eta, bestetik, prozedura bat arautu zen Iruñeko Udaleko Hirigintzako Gerentziak urbanizazio gastu horiengatik ordaindutako kopuruak itzultzeko. Halaber, jarraipen batzorde bat sortu zen, administrazio bakoitzeko hiruna ordezkari osatua, hitzartutako jarduketak koordinatzeko. Zehaztu beharra dago Club Atlético Osasunari dagokiola unitateko urbanizazio-zamen ehuneko 60,80 ordaintzea.

II.2. KIROLDEGIRAKO AURREIKUSI DIREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Nafarroako Gobernuaren 2008ko aurrekontuen aurreproiektuan 1.000 euroko kontusail sinboliko bat sartu zen, honako izenburuaren pean: "Iruñeko kiroldegiarako azterlan teknikoak eta proiektua". Aurreneko momentu horretan, planteatu zen erabilera anitzeko kiroldegi bat egitea, nahiz eta oraindik

¹ Jabetza pribatuko eraikinak egiteko eremu libre bat geratzen da, 2.970 m²-koa.

erabaki gabe zegoen zenbat ikusle hartuko zituen, nolako egituratze teknikoa izanen zuen edo non kokatuko zen; alabaina, Sadar estadioaren ingurua aipatzen hasia zen.

2008ko apirilean, Gobernuak kiroldegi proposamen bat aurkeztu zuen, "Reyno de Navarra Arena" izenarekin, eta xehetasun batzuk eskaini zituen haren ezaugarriei buruz: 10.000 ikuslerentzako pista zentral bat eta 2.500 ikuslerentzako pista osagarri bat izanen zituen, bai eta kirolaren museo bat eta lurrazpiko aparkaleku bat ere.

2012 Nafarroa Plana, Gobernuaren eta Nafarroako Alderdi Sozialistaren arteko akordioaren emaitza, 2008ko apirilean onetsi zuen Nafarroako Gobernuak. Gero, urte bereko maiatzean, Nafarroako Parlamentuak berretsi zuen. Haren xede nagusia da krisi ekonomikoaren hasierako egoerari aurre egitea 2008tik 2011ra bitarteko aldiari zuzkidura eta inbertsio publikoak eginez.

Plan horren barrenean, "Reyno de Navarra Arena" kiroldegia lehentasunezko jarduketatzat hartzen da. Balio anitzeko instalazio baten gisara definitzen da, funtzio anitzekoa eta ez soilik kirolerakoa. Hasiera batez, 60 milioi euroko aurrekontua izan zuen. Obren hasiera 2009ko irailerako ezarri zen, eta kalkulatu zen 2011ko lehen hiruhilekoan amaituko zela.

Hartara, plan horrek daukan azalpen-fitxaren arabera eta kiroldegiari buruzko webgunearen arabera, honakoak ziren azpiegitura horretarako aurreikusitako ezaugarri nagusiak:

"Reyno de Navarra Arena" erabilera anitzeko pabiloia Sadar kalean kokatuko da, CA Osasunaren Reyno de Navarra futbol-zelaiaren ondoan dagoen 20.000 m²-ko orube batean. Eraikinak 20 m-ko garaiera izanen du, gehienez. Sotoko bi solairu (behekoa aparkalekua izanen da), beheko solairua eta goiko hiru solairu izanen ditu eta eraikitako azalera osoa 45.000 m²-koa izanen da, lurzatiaren 11.000 m² hartuko dituena, gutxi gorabehera.

Pabiloien barnean 3.000 m²-ko erabilera anitzeko pista nagusi handia egonen da. Bertan kirol jarduerak egiten ahalko dira aterpean eta, horrez gain, mota guztietako kirol ikuskizunak eta beste-lako lanbide eta gizarte jarduerak egiteko esparrua izanen da, adibidez, kontzertuak, batzarrak eta tamaina handiko topaguneak, besteak beste. Edukiera 10.000 ikuslekoa izanen da, gutxi gorabehera. Harmaila finkoak eta teleskopikoak izanen ditu, baita eserlekuak banantzeko moduluak ere. Eserleku horietatik 630 lehen mailakoak izanen dira eta 250 palkoetakoak izanen dira.

Halaber, pabiloia 1.600 m²-ko pista osagarria izanen du, erabilera anitzeko espazioa izanen dena. Beraz, bertan ere kirol jarduerak eta ikuskizunak egiten ahalko dira, eta pista nagusian gartzan den edozein gertaerari laguntzeko erabiltzen ahalko da. Pista horren kirol erabilerarako gehieneko edukiera 1.500 eserlekukoa izanen da, gutxi gorabehera, eta eserlekuk guztiak harmailetan egonen dira. Horrez gain, esparru horrek 36 metroko pilotalekua izanen du, pilotaren final profesionalak egiteko. Pilotalekuaren erabilerarako gehieneko edukiera 3.000 ikuslekoa izanen da, gutxi gorabehera.

Bi pisten artean harmaila teleskopikoen blokea proiektatu da, alde batera zein bestera begira jartzen ahalko dena. Harmaila horiek sotoan ezkututzen ahalko dira, bat-batean desagerrarazten ahal den plataformaren sistemaren bidez. Horrela, bi pistak bateratzen ahalko dira, eta 107x44 m-ko (4.708 m²) guztizko azalera libre geratuko da. Era berean, plataforma hori agertokia izan daiteke kontzertu eta ikuskizunetarako.

Kiroldegiaren barruko altuera librea 18 m-koa izanen da, salbu eta zubi-pasabidearen aldean, non 16,5 m-koa izanen baita.

Gainera, pabiloia erabilera anitzeko hainbat gela, kirolaren museoa, prentsa eta hitzaldi aretoa, administrazio zerbitzuak, medikuntza eta kirol zerbitzuak eta kafetegia izatea aurreikusi da. Halaber, eraikinak Nafarroako Kirol Federazioen egoitzak hartuko ditu barne, hiru solairutan banatutako 1.800 m² inguruko azalera batean.

Kirolaren Museoak Nafarroako kirol historia bilduko du eta arlo horretan Foru Komunitatearen arrakastak ekarri dituzten elementuak egonen dira ikusgai bertan. 450 m² inguruko azalera izanen du.

*Era berean, nabarmentzekoa da instalazioen irisgarritasuna, hala sistema geotermikoak nola be-
roa biomasaz sortzea."*

Bestalde, kiroldegiaren proiektua kontratatzeko orrian, honako ekipamendua aurreikusten da:

- Kiroldegiaren sabaia 50 tonari eusteko prestatuta egonen da, aparteko muntaketa batek azalera guztia erabilgarri egotea eskatzen duenean.

- Estaldurarako kable bidezko sistema elektronikoa izanen du, segurtasun kontrolak bateragarri egiteko.
- Telekomunikazio sistema modernoak, wifi, eta abarrekoak.
- Pista nagusiaren zentroan bideo-markagailu bat, kanpoko pantailekin.
- Saskibaloiko markagailu berariazkoak.
- Instalazio osorako bideo-zaintzako sistema.
- Ekoizpen areto guztiz ekipatua.
- Pista nagusiaren eta pista osagarriaren egokitze akustikoa, musika-ikuskizunetarako.
- Eremuen eta espazioen arabera klimatizazioa.
- Barrualdean, publizitate-espazioetarako eremuak, behar denean ezkuta daitezkeenak.
- Kanpoaldeko publizitate-espazioak.
- Minusbaliatuentzako guztizko irisgarritasuna, baita berariazko eremuetarako ere.
- Sarbide-ibilbide berezituak.
- Telebista-kameretarako plataformak.

II.3. KIROLDEGIAREN ERAIKUNTZA-LANEN EGITURATZEA.

Hasiera batean, Nafarroako Gobernuak, 2008ko apirilaren 28ko bilkuran, erabaki zuen SPRIN sozietatea premiatzea azpiegitura bere gain hartzeko behar ziren jarduketak egin zitzaizkion; hau da, erabaki zen obra guztiz egin eta finantza zedila Administrazioaren tresna izaerako ente baten bitartez.

Hala eta guztiz ere, Gobernuaren 2008ko abenduaren 29ko erabakiaz, indarrrik gabe utzi zen aurreko erabaki hori, zeren eta jo baitzen egokiagoa zela azpiegitura hori Nafarroako Gobernuak eraiki eta finantza zezala Nafarroako Kirol Institutuaren bitartez; halaber, jaso zen SPRIN eraikuntza-proiektuaren kudeaketa teknikoaz eta azpiegitura horren ustiaketa abian jartzeaz arduratuko zela, bai eta hura garatu eta funtzionamenduan jartzeko beharrezko jarduketa guztiez ere.

Kiroldegiaren proiektu osoa, obrei eta ekipamenduari eta kontratazio-prozesuaren eraginei dagokionez, honako fase edo loteen arabera azpi-banatzen da:

Nafarroako Erresuma kiroldegiaren eraikuntza

SPRINi egindako enkargua: laguntza teknikoa

1. lotea: Eraistea eta kiroldegiaren I. fasea
2. lotea: Harmailak eta plataforma
3. lotea: Urbanizazioa eta kiroldegiaren II. fasea
4. lotea: Bideo-markagailuak
5. lotea: Afororako gortinak eta sareak
6. lotea: Federazioen eraikina eta akabera-lanak
7. lotea: Bestelako ekipamenduak

Gero, SPRIN sozietate publikoa azkentzearen ondorioz, 2011ko urrian aurreko enkargu hori azkendu zen, eta Institutua kontratu indardunetan subrogatu zen, SPRINi enkargatutako gainerako egin-beharrak ere bere gain hartuz.

Aipatutako enkarguaren indarraldian, SPRIN sozietateak, funtsean, honako kontratuak esleitu zituen:

- Kiroldegiko proiektua diseinatu, exekutatu, garatu eta kudeatzeko aholkularitzako kontsultalanak, 2008ko ekainean esleituak.
- Eraikuntza proiektua, ekipamendu-proiektua eta obraren zuzendaritza, 2008ko abenduan esleituak.

- Urbanizazio- eta eraikuntza-obren segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinazioa, 2009ko abuztuan esleitua.

Kiroldegia eraikitzeko obrak, Institutuak kudeatuak, honako loteetan azpi-banatuta daude:

- 1. lotea edo eraispina eta eraikuntzaren I. fasea. Funtsean, honakoan datza: hirigintza-unitatean lehenik zeuden kirol instalazioak eraisteko obrak eta kiroldegia egiteko lur-mugimendua, zimentatzea eta egitura. 2009ko abuztuan esleitu ziren.

- 3. lotea edo urbanizazioa eta eraikuntzaren II. fasea. Funtsean, azpiegiturako estaldurak, fatxadak, igeltsero-lanak, instalazioak, akaberak eta abarrekoak kontratatzeari dagokio, bai eta unitateko kasuko urbanizazio-obrak kontratatzeari ere. Lote hori 2010eko maiatzean esleitu zen.

- Halaber, 2009ko azaroan, 2. lotea esleitu zen. Funtsean, plataforma, harmailak eta eserlekuak diseinatu, fabrikatu eta muntatzean datza.

Kiroldegia eraikitzeko lanak 2009ko irailean hasi ziren; aurreko kontratuetako obrak eta instalazioak 2011ko uztailean –1. lotea–, 2013ko apirilean –2. lotea– eta 2013ko maiatzean –3. lotea– jaso ziren.

Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-murrizketak direla-eta, hasiera batean aurreikusitako gainerrako loteak ez dira lizitatu.

Hurrengo orrialdean, kiroldegiaren bi argazki gehitu ditugu.



II.4. AURREIKUSITAKO NEGOZIO- ETA KUDEAKETA-EREDUA.

2009ko ekainean, laguntza teknikoaz arduratzen zen enpresak, kontratuari jarraituz, kiroldegirako negozio- eta kudeaketa-eredu bat landu zuen. Agiri horretatik ondoko alderdi hauek azpimarratuko genituzke:

- Kiroldegiaren helburu estrategikoak. Helburu nagusia da Nafarroari erabilera anitzeko azpiegitura bat ematea, kiroleko, kulturako eta aisialdiko ekitaldi handiak hartzeko behar diren baldintza teknikoekin.

Helburu horren osagarri, beste batzuk badaude; esate baterako, Nafarroako eliteko kirol-taldeen ekipamendu moderno bat izan dezatela edo jarduera ekonomikoko zentro bat sortzea.

- Jardueren urteko programa. Programa anitz eta erakargarria bilatuko da, hiru tipologiatan oinarritua:

- a) Nazioko eta nazioarteko kirol ekitaldiak (taldekakoak, banakakoak eta pilotalekukoak).
- b) Musika ekitaldiak (pop-rockeko kontzertuak eta jaialdiak).
- c) Ikuskizun eta barietateak (famiarentzakoak, zirko erakustaldia, gizarte ekitaldiak...).

Kirol taldeen entrenamenduz gainera –astean hiru edo lau egunez–, aurreikusita dago kiroldegiaren bosgarren funtzionamendu-urtean 80 ekitaldi inguru egitea: ehuneko 45, kirol ekitaldiak; ehuneko 39, ikuskizunak eta barietateak, eta ehuneko 16, musika-ikuskizunak.

- Kudeaketa eta antolamendua. Egindako azterlanei jarraituz, gisa honetako instalazioetan ohikoena den kudeaketa-formula da eraikuntzaz Administrazio Publikoa ardura dadila, eta lagapen bidez, eraikinaren ustiatetaz eta kudeaketaz sozietate publiko edo pribatu bat ardura dadila. Azken batean, azpiegituraren jabetza eta kudeaketa bereizteko joera dago.

Halaber, aipatzen da komenigarria dela bereiztea azpiegituraren berezko kudeaketa eta zerbitzu osagarrien (jaketxeak, museoak, denda, aparkalekua...) kudeaketa. Zerbitzu horiek esparru horietako enpresa espezializatuei esleitu behar zaizkie, eta haien jarduera eta ordutegia kiroldegian antolatzen diren ekitaldiez bestekoa eta independentea izanen dira.

- Antolaketa-egitura. Egokitzen jo da plantilla txikia edukitzea, langile propioak kontratatuz funtsezko jardueretarako eta gainerako jarduerak azpi-kontratatuz. Hasiera batean, plantilla horrek lau profesional izanen ditu: zuzendari kudeatzailea, administrazioa eta pistaren eta mantentzearen arduradunak.

- Negozio eredia. Horretarako, ondoko hipotesiak hartzen dira abiapuntu:

- a) Kudeaketa eredia: kiroldegiaren titulartasun publikoa, baina entitate publiko nahiz pribatu batek kudeatua.

- b) Kudeaketa horretarako, ez dira kontuan hartuko ez hasierako inbertsioa, ez haren amortizazioa ere.

- c) Kiroldegiko espazioen errentamendua, entitate kudeatzailearen jarduera nagusi gisa.

- d) Entitate kudeatzaileak, halaber, aparkalekua eta museoa ustiatuko ditu, eta jabetxe-negozioa kudeatuko du edo, bestela, kanpoan kontratatuko du.

- e) Hasierako ustiatetarako bost urteko epea aurreikusi da.

- f) Oinarrizko agertokiak: hiru agertoki aurreikusten dira, ekitaldien arabera eta ikus-entzuleen bertaratzearen arabera: behe mailakoa, maila ertainekoa eta goi mailakoa.

- g) Ustiateta gastuak: langileak, mantentzea, azpikontratazioak, hornidura, aldagaiak eta museoaren ustiateta. Gastu horiek, behe mailako agertokian, urtebetean 1,41 milioikoak dira, eta bosgarren urtean 1,67 milioira iristen dira; mantentze-gastuak milioi erdi bat euroko inguruak dira.

- h) Tarifak: Kasuko tarifak egituratzearen, bezeroak erabiltzen duen espazioaren eta espazio horren aforoaren arabera kuantifikatzen dira. Hartara, guztira 10 tarifa ezartzen dira; merkeena 2.890 eurokoa da –pista osagarria, 1.521 ikuslerentzat– eta garestiena, berriz, 19.116 eurokoa –pista nagusia, 10.620 ikuslerekin–. Gainera, urteko tarifa finko bat kobratuko zaie kiroldegia erabiltzen duten kirol talde profesionaleri. Tarifa hori erabilpen-orduetako kontsumoen arabera kalkulatu da.

i) Diru-sarrerak: kirol talde profesionalen eskutik, espazioen errentamendutik, VIP eremutik, publizitatetik, museotik, sarreren salmentatik eta abarretatik heldu diren diru-sarrerak kalkulatu dira; hartara, 1. urterako, 0,77 milioiko diru-sarrerak kalkulatu dira; 5. urtean, berriz, 1,71 milioikoak izatera iritsiko dira. Diru-sarreren ehuneko 10 inguru kiroletik helduko lirateke; ehuneko 70 inguru ikuskizun eta ekitaldietatik eta ehuneko 20 azoka, erakusketa eta biltzarretatik.

j) Ustiaketaren emaitzak: bosgarren urtean, kiroldegiaren jarduera nagusia emaitza positiboak ematen hasiko da; zergen aurretik, 29.717 euroko emaitza lortuko da. Hartara, bost urteetarako eta behe mailako agertokiaren arabera, gastuei eta diru-sarrerei buruzko honako taula aurreikusten da:

	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	5. urtea
Diru-sarrerak	773.683	996.115	1.170.950	1.489.152	1.708.668
Gastuak	1.407.818	1.477.243	1.546.436	1.691.526	1.678.951
Emaitza garbia	-634.135	-481.128	-375.486	-130.374	29.717

Agertokiei erreparatuta, goi mailakoaren eta maila ertainekoaren kasuan, ustiaketaren emaitza positiboa laugarren urtetik hasiko da lortzen.

- Arena kiroldegiak Nafarroako ekonomian duen eragina. Hasierako inbertsioa 60 milioi eurokoa dela abiapuntutzat hartuta, jotzen da produkzioaren gaineko eragin biderkatzailea bat egonen dela –123 milioi–, balio erantsi gordinaren gaineratik –50 milioi– eta enpleguaren gaineratik –900 lanpostu–. Halaber, jotzen da lehenengo bost urteetan 430.000 pertsona –behe mailako agertokia– eta 804.491 pertsona –goi mailako agertokia– bitarte joanen direla kiroldegira.

III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Parlamentuaren eskaria kontuan hartuta eta Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, "Reyno de Navarra Arena" kiroldegiaren finantzen fiskalizazioa, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioa eta kudeaketaren fiskalizazioa egin ditugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko ondorio batzuk agertzea:

- Azpiegituraren egoera eta aurrekontuan eta kontabilitatean duen isla 2014ko abenduaren 31n.
- Kiroldegia eraikitzekeo prozesuan aplikatzekoa den kontratu-legediaren betetze-maila.
- Instalazioak, ekipamenduak eta kostuak direla eta direla-eta hasierako proiektuetan ezarritakoak noraino bete diren aztertzea.
- Kiroldegia amaitzeari eta irekitzeari buruzko aurreikuspenak, denborari eta kostuari dagokionez.
- Azpiegitura honetarako landu diren negozio- eta kudeaketa-ereduaren arrazoikotasuna.

Metodologia gisa, lana egingen da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean eragiketa zehatzen azterketa selektiboa egiteko teknika erabili da.

Hartara, honakoak aztertu eta berrikusi dira: kontratazio-prozedurak; kontratazioarekin lotutako gastuen eta diru-sarreraren kontusailen kontabilitate- eta aurrekontu-isla; proiektuetan hasiera batean jasotako aurreikuspenen betetze-maila eta antzemandako desbideratzeen justifikazioa; eta bideragarritasun azterlanen eta kudeaketa-ereduaren egokitasuna.

Azpiegitura honen kudeaketa-eredua dela-eta Parlamentu-eskari honek aipatzen duen azterketari dagokionez, gure jarduketaren ardatza izan da dauden aukera nagusiak deskribatzea, aztertuz, gure iritziz, haiek zein alde on eta alde txar nagusi dauzkaten.

Kiroldegiaren obra Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua kudeatzen ari da². Institutua Nafarroako Gobernuak Gizarte Gaietako Departamentuari atxikitako erakunde autonomoa da.

Halaber, lan honetarako Ganbera honek egindako honako txostenak hatu ditugu kontuan:

- Nafarroako Kirolaren Institutuaren 2009ko ekitaldiari buruzko fiskalizazioa.
- Nafarroako Kontu Orokorrak, 2011tik 2013ra bitartekoak.

Gure lanaren denbora-esparrua 2008ko apirilean hasi zen, kiroldegia eraikitzekeo prozedura hastearrekin, eta 2014ko abenduaren 31ra arte hartzen du. Denbora-esparru horretan, obrei aplikatzekoa zaien kontratazioko oinarriko araudia Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea da.

Kiroldegiaren eraikuntza oraindik ere amaitu ez denez, ezin dugu iritzirik eman haren amaierako gastuari buruz, ez eta, kasua bada, hasierako proiektuarekiko dauden desbideratzei buruz ere.

Azkenik, aipatu behar dugu gure jarduketa soilik fiskalizazio ekonomiko eta finantzarioaren ikuspuntutik burutu dugula, azpiegitura eraikitzearen alderdi teknikoak baloratzea sartu gabe; esate baterako, proiektuen eta kalitatearen egokitasuna, neurketa eta materialen prezioa.

² Hasiera batean, ordea, aipatu dugun bezala, eginkizun hori Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A.ri (SPRIN) enkargatu zitzaion eginkizun hori.

IV. ONDORIOAK

Ondoren, egindako lanetik ateratako ondorio nagusiak azalduko dira.

IV.1. "REYNO DE NAVARRA ARENA" KIROLDEGIAREN AURREKARIAK ETA AURREIKUSPENAK.

Lehen. Nafarroako Foru Komunitateak gisa horretako espazio egoki bat eduki dezan, Nafarroa 2012 Planak lehentasunezko jarduketara gisa biltzen du kiroldegi bat eraikitzea, eta horretarako aipatzen duen aurrekontua 60 milioi eurokoa; horren arabera, obrak 2009ko irailean hasi eta 2011ko lehenengo hiruhilekoan amaituko dira. Guztira aurreikusitako gastua, urbanizazio lanak barne, ehuneko 16ko BEZ tasarekin, honakoa da:

Reyno de Navarra Arena kiroldegia	Zenbatekoa
Eraikuntza lanak eta ekipamenduak	60.000.000
Urbanizazioa	4.033.275
Kiroldegirako gastua-Nafarroa 2012 Plana	64.033.275

Nahiz eta Institutuak beharrezanez buruzko alde aurretiko ikerketa batzuk egin zituen, Nafarroa 2012 Planarekin batera –2008ko apirilean onetsi zen plana– dagoen dokumentazioan, ez da ageri azpiegitura honekin ase nahi diren beharrezanez buruzko analisi edo azterlanik.

Bigarrena. Kiroldegia Iruñeko Udalaren jabetzakoa den zuzkidura-lurzati batean eraiki da. Udalak Nafarroako Gobernuari doan laga zion lurzatia. Lagapen hori bi administrazioek horri buruz izenpetutako lankidetzaren hitzarmenean jasota dago. Lurzatiak 1,37 euroko katastro-balioa dauka.

Hirugarrena. Halaber, Iruñeko Udalarekiko beste hitzarmen baten bitartez, erabaki zen Nafarroako Gobernuak kudea zitzala kiroldegia egiteko lurzatia kokatuta zegoen unitateko urbanizazio-obrak; gero, Udalak kostu hori Gobernuari itzuliko zion.

Laugarrena. Hasiera batean, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A.k (SPRIN) egin eta finantzatuko zuela azpiegitura hori. Hala eta guztiz ere, geroko erabaki baten bidez, ardura horiek Nafarroako Kirolaren Institutuaren esku utzi ziren; SPRIN sozietatearen jarduketara, berriz, eraikuntza-proiektuaren kudeaketa teknikoari zegokiona izanen zen, bai eta azpiegituraren ustiaketa abian jartzearena eta azpiegitura garatu nahiz funtzionamenduan jartzeko behar ziren jarduketena ere. Sozietate publiko hori 2011n desegin zenez, azken eginkizun horiek ere Institutuak hartu zituen bere gain, eta jadanik sinatutako laguntza-kontratuetan subrogatu zen.

Bosgarrena. Laguntza tekniko kontratatatu eta ondoren definitu zen kiroldegiaren diseinua. Hartara, balio anitzeko, erabilera anitzeko eta funtzio anitzeko azpiegitura baten gisara egituratu zen; ez soilik kirol-azpiegitura baten gisara. Pista nagusi bat izanen du, 10.000 ikusle bitarte hartzeko tokiarekin eta pista osagarri bat –bereziki pilota ekitaldietarako–, 3.000 biztanle bitarte hartzeko tokiarekin. Moldagarritasuna izanen zen kiroldegiaren funtsezko ezaugarrietako bat, zeren eta harmaila finko eta mugikorak izanen baitzituen, funtzionaltasuna egin beharreko ekitaldi bakoitzaren berezko beharrezan araberak egokitzeko moduan. Ekitaldien honako tipologia aurreikusten da:

- Kirol ekitaldiak, naziokoak nahiz nazioartekoak.
- Musika ekitaldiak.
- Ikuskizun eta barietateak.

Seigarrena. Halaber, laguntza tekniko kontratatatzeko fase horretan, haren negozio- eta kudeaketa-eredua landu ziren.

Negozio-planaren arabera, bosgarren urtetik aurrera kiroldegiaren ustiaketa-emaitzak –hasierako inbertsioa eta haren amortizazioa kontuan izan gabe– 29.717 euro positibokoak izanen lirarteke; ustiaketa-eraren gastuak 1,68 milioiokoak izanen lirarteke eta, diru-sarrerak, berriz, 1,71 milioiokoak.

Jotzen da, kiroldegiaren bosgarren funtzionamendu-urtean, 80 ekitaldi inguru egitea; horietatik, ehuneko 45 kirol ekitaldiak izanen dira, ehuneko 39 ikuskizunak eta barietateak izanen dira eta ehuneko 16, azkenik, musika ekitaldiak.

Kudeaketa-ereduari dagokionez, aurreikusten da kiroldegiaren jabetza esparru publikoan mantentzea eta haren kudeaketa sozietate publiko edo pribatu batek hartzea, nahiz eta ez den formula jakin baten alde egin.

IV.2. KIROLDEGIAREN ERAIKUNTZA-PROZESUAREN EGOERA 2014ko ABENDUAREN 31n.

Zazpigarrena. Kiroldegiaren proiektu osoa kontratazio-xede diren honako fase edo lotetan egituratzen da, eta honakoa da 2014ko abenduaren 31ko egoera:

Nafarroako Erresuma kiroldegiaren eraikuntza	2014-12-31ko egoera.
SPRINI egindako enkargua: laguntza teknikoa	2011ko urrian azkendu zen.
Laguntza teknikorako, proiektua idazteko eta obra zuzendaritzarako kontratuak eta laneko segurtasuneko eta osasuneko kontratua.	2013ko abenduan amaituak
1. lotea: Eraistea eta kiroldegiaren I. fasea	2011ko uztailean jaso
2. lotea: Harmailak eta plataforma	2013ko apirilean jaso
3. lotea: Urbanizazioa eta kiroldegiaren II. fasea	2013ko maiatzean jaso
4. lotea: Bideo-markagailuak	Lizitatzeko dago
5. lotea: Afororako gortinak eta sareak	Lizitatzeko dago
6. lotea: Federazioen eraikina eta akabera-lanak	Lizitatzeko dago
7. lotea: Bestelako ekipamenduak	Lizitatzeko dago

Hau da, aipatutako datan, laguntza-kontratuak amaitu dira eta 1. lotetik 3. lotera bitartekoen obrak jaso dira. Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-murrizketak direla-eta, 4. lotetik 7. lotera bitartekoak ez dira lizitatu.

Kiroldegia eraikitzeko berezko obrak 2009ko abuztuan hasi ziren, eta esleitutako loteak 2011tik 2013ra jaso ziren.

Zortzigarrena. Ez dago denbora-aurreikuspenik esleitu gabe dauden loteak esleitzeko; aztertutako informazioaren arabera, gaur egun, Institutuaren esanetan, 6,23 milioiko gastua ekarriko lukete. Gai honi buruz hauxe esan behar dugu:

- Denbora-mugarik gabe geroratu dira, aurrekontuak bidea eman arte, 2,3 milioi egiten duten inbertsioak; honakoei dagozkie, funtsean: federazioen eraikina, kirolaren museoa eta pasarela.
- Beharrezkotzat jotzen da aurreikusitako gainerako inbertsioak, 3,93 milioi egiten dutenak, egitea, azpiegituraren funtzionamendu normalera iristeko; funtsean, ekipamenduei dagozkie.
- Aurrekoen barruan, eta kiroldegia puntualki irekitzeko, hau da, soilik ekitaldi jakin batzuk egiteko, gutxienez ere 1,19 milioi euroko inbertsioak egin behar dira, ekipamendurako, iturgintzarako, metal-lan batzuetarako, zurgintzarako, igeltsero-lanetarako eta abarretarako. Inbertsio horrekin, pilota partidak, pista nagusiko kontzertuak, erakustaldiak, bilkurak eta aforo handiko ekitaldiak egin ahalko liriteke; ezin izanen liriteke kirol ekitaldiak egin, ekipamendu faltagatik.

Bederatzigarrena. 2014ko abenduaren 31n, ez dago aurreikusita ez kiroldegiko obrak amaitzea, ez erabilera publikorako irekitzea, ezta ekitaldi jakin batzuetarako ere. Nafarroa Planak biltzen zituen hasierako kalkuluei jarraituz, aurreikusita zegoen obrak 2011ko lehen hiruhilekoan amaitzea.

IV.3. AURREKONTU-GASTUAK ETA -DIRU-SARRERAK, 2014ko ABENDUAREN 31ra ARTE.

Hamargarrena. 2009tik 2014ra, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako 6. kapituluak, inbertsioenak, 58,81 milioiko aurrekontu-gastu garbiak aurreikusten ditu, gastuaren izaeraren arabera honako xehetasunekin:

Kiroldegiko aurrekontu-gastuak-6. kapitulua	Zenbatekoa
Obrak eta urbanizazioa	54.021.259
Laguntza teknikoa	4.065.426
Beste gastu batzuk	718.172
Ekipamendua	1.966
Inbertsioa, guztira (2009-2014)	58.806.823

Aurreko gastua dela eta, bi zehaztapen egin behar dira:

- Kiroldegiko gastuari buruz aurkeztutako aurreikuspenak ehuneko 16ko BEZ tasarekin egin ziren. Eraikuntza prozesuan zehar, tasa hori bi aldiz igo da, ehuneko 18ra eta ehuneko 21era. BEZaren igoera horrek gastu handiagoa ekarri du, 1,3 milioi euro ingurukoa.

- 1,03 milioiko zenbateko garbia egiten duten kalte-ordainak ordaindu dira; hona jatorria:

a) 2011rako finkatutako aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzeko beharraren aurrean, Nafarroako Gobernuak alde bakarretik aldatu zituen laguntza teknikoaren esleipendunekin zeuzkan kontratuak; betetze epea 2013ra arte luzatu zuen, obrak egiteko erritmo berriari egokitzeko; horrek berarekin ekarri zuen 0,79 milioi euroko kalte-ordaina ordaintzea. Ordaindutako zenbatekoak nabarmen txikiagoak izan ziren hasieran enpresek eskatu zituztenak baino (bi eta hiru aldiz txikiagoak).

b) Halaber, 2. loteko esleipendunari beste kalte-ordain bat ordaindu behar izan zitzaion, muntaketa-fasea eteteagatik eta ezarritako geroratzengatik. 0,28 milioikoa izan zen kalte-ordaina. Enpresak 1,57 milioi eskatu zituen.

c) 3. loteko esleipendunari, 0,19 milioi ordaindu zitzaizkion, zeinak ziurtagirien ordainketan izandako geroratze-interesei -8.960 euro- eta haren aldeko epai bati baitagozkio, lurzatian egindako urbanizazio obrak zirela eta -184.539-. Obra horiei dagokienez, enpresak 0,33 milioi euro eskatu zituen guztira.

d) Gastu txikiago gisa, 1. loteko esleipendunak obren exekuzioan izandako atzerapenengatik 0,24 milioiko zigor bat ordaindu zuen.

Hamaikagarrena. Nafarroako Gobernuaren 2013ko eta 2014ko aurrekontuetako 2. kapituluak kiroldegiaren mantentze-gastu batzuk ageri ditu, guztira 0,4 milioi egiten dutenak; horietatik, 153.512 euro 2013ko aurrekontuari egotzi zaizkio eta 246.587 euro, berriz, 2014koari.

Laburbilduz, 2009tik 2014ra bitarteko aurrekontuek, izaerari erreparatuta, kiroldegiaren honako gastuak bildu dituzte:

Nafarroako Gobernuaren aurrekontu gastuak, kiroldegia dela eta	Zenbatekoa
Inbertsioaren guztizkoa-6. kapitulua	58.806.823
Mantentze-lanen guztizkoa-2. kapitulua	400.099
Gastuen aurrekontua, guztira (2009-2014)	59.206.922

Hamabigarrena. Bestalde, urbanizazio-lanen kudeaketarako eta finantzaketarako Iruñeko Udala-ekin sinatutako hitzarmenari jarraituz, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuek 4,51 milioiko diru-sarrerak jasotzen dituzte, gastuen itzulketarengatik. Hona xehetasunak:

Kiroldegia-Urbanizazio gastuen itzulketaren ondoriozko diru-sarrerak	Zenbatekoa
2011	2.081.651
2012	2.211.417
2013	35.562
2014	184.539
Diru-sareren aurrekontuak, guztira (2011-2014)	4.513.169

Aurreko diru-sarrera horietatik, guztira 4,1 milioi Hirigintzako Gerentziarekiko zorrak konpentsatzeko formularen bitartez kobratu dira, Buztintxuriko sektorean dauden beste lurzati batzuen urbanizazio-kuotak direla eta.

Zehaztu beharra dago ezen itzulketengatik aitortutako eskubideak 207.590 euro handiagoak direla 3. lotean jasotako urbanizazioko gastu berekiak baino. Alde hori justifikatuta dago, funtsean, Udalari aurkeztutako likidazioetan, adostutakoaren arabera, urbanizazioari egotzekoak ziren beste gastu batzuk sartu direlako; esate baterako, antzinako instalazioak eraisteko gastuak eta urbanizazioko beste lan aurreratu batzuk, 1. loteko kontratuan sartutakoak, ekipo elektrogenoa alokatu eta instalatzea, eta elektrizitate-enpresari ordaindutako tasak.

Hamahirugarrena. 2014ko abenduaren 31n, honakoetatik heldu diren kontingentzia batzuk egon dira:

- Epaitegietan ebazteko dago 3. loteko enpresa esleipendunaren erreklamazio bat, 1,23 milioi eurokoa; erreklamazio hori heldu da enpresa hori ados ez egotetik obren amaierako ziurtagiriarekin. Txosten hau eztabaidatzeko fasean, adierazi digute ezen, enpresak aurkeztutako errekurtsioan, aurreko zenbatekoa 0,85 milioi eurotan finkatu dela (BEZa barne).
- Urbanizazio-gastuak direla-eta 2014an kontabilizatutako itzulketaren diru-sarrerari dagokionez – 0,18 milioi dira–, ebazteko daude hari buruz Iruñeko Udalak aurkeztu dituen dibergentziak.
- 1. loteko obren atzerapenaren arduradunentzako balizko erreklamazioa, Gobernuak 2. loteko esleipendunari lanen eteteagatik eta geroratzeagatik ordaindutako zenbatekoari –0,28 milioi– buruzkoa, ondorioen fasean dago.

Hamalaugarrena. Nafarroako Gobernuaren 2015erako gastu-aurrekontuek 0,39 milioi euroko kreditu-aurreikuspenak dauzkate, honako xehetasun hauen arabera:

Nafarroako Gobernuaren 2015eko aurrekontua	Hasierako kreditua
2. kapitulua. Reyno de Navarra kiroldegiaren mantentzea eta funtzionamendua	390.000
6. kapitulua. Reyno de Navarra kiroldegiko inbertsioak	10
Kiroldegia, guztira	390.010

Horrenbestez, 2015erako, hasiera batez soilik instalazioetako mantentze-lanak aurreikusten dira.

IV.4. KIROLDEGIKO INBERTSIOAREN GASTU GARBIA, 2014KO ABENDUAREN 31N

Hamabosgarrena. 2014ko abenduaren 31n, Nafarroako Gobernuak instalazio horren eraikuntza dela-eta izan duen gastu garbia 54,29 milioi eurokoa da; hona xehetasunak:

Nafarroako Gobernuak kiroldedia dela eta izan duen gastu garbia	Zenbatekoa
Inbertsio gastuak	58.806.823
Urbanizazio-gastuen itzulketa	-4.513.169
Nafarroako Gobernuaren guztizko gastua, kiroldedia dela eta	54.293.654

Hasierako aurreikuspenen aldean, 60 milioiko inbertsioa, urbanizazio lanak kontuan izan gabe, ehuneko 90 inguru exekutatu da.

Hamaseigarrena. Alabaina, azpiegituraren guztizko kostua, 2014ko abenduaren 31ra arte, 55,67 milioi eurokoa izan da ukitutako Nafarroako administrazio publiko guztientzat –Nafarroako Gobernu eta Iruñeko Udala–; hona xehetasunak:

Kiroldegiaren kostua Nafarroako Gobernuarentzat eta Iruñeko Udalarentzat	Zenbatekoa
Lurzatiaren balorazioa (katastro-balioa)	1.374.607
Inbertsio gastuak	54.293.654
Kiroldegiaren guztizkoa, administrazio publikoek ordaindua	55.668.261

Lurzatia ere barne dago, bere katastro-balioarekin Aipatu den bezala, lurzati hori doan laga zion Udalak Gobernuari. Udalak, bere aldetik, kiroldedia egin deneko exekuzio-unitatean onetsitako hirigintza-aldaketa baten bitartez eskuratu zuen.

Urbanizazio-gastuei dagokienez, ikusita kiroldedia egin deneko lurzatia jabari eta erabilpen publikokoa dela, ez du gisa horretako zamarik. Gastu horiek Udalak exekuzio-unitateko jabeen multzoari egotzi dizkio.

IV.5. ESLEIPENEN LEGEZKOTASUNA ETA HAIEN EXEKUZIOAREN GAINEKO KONTROLA.

Hamazazpigarrena. Kiroldegiaren eraikuntzarako, honako kontratu nagusiak esleitu ziren:

Entitate esleipenduna	Kontratua	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	Likidatutako zenbatekoa
NKGI	Aholku teknikoa	SPRINi eginitako enkargua	-	3.219.910	2.920.584
SPRIN	Kiroldegiko proiektua diseinatu, exekutatu, garatu eta kudeatzeko aholkularitzako kontsulta-lanak	Negoziatua, Europar Batasunean publikizitatea eginda	696.000	612.480	883.336
SPRIN	Eraikuntza proiektua, ekipamendu-proiektua eta obraren zuzendaritza	Irekia	2.900.000	2.030.000	2.931.735
Entitate esleipenduna	Kontratua	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	Likidatutako zenbatekoa
SPRIN	Urbanizazio- eta eraikuntza-obren segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinazioa	Irekia	203.000	151.158	159.622
NKGI	1. lotea Eraispina eta eraikuntzaren I. fasea.	Irekia	15.806.412	12.642.676	13.008.110
NKGI	2. lotea Harmailak eta plataforma	Lehia-elkarriketa	10.324.000	10.322.840	10.981.231
NKGI	3. lotea II. fasea eta urbanizazio-obrak	Irekia	28.236.326	28.236.326	30.031.918

Oharra: SPRINen gastutik gehiena laguntza-kontratuei dagokie.

Kontratu horiek guztiak amaituta daude txosten hau idazteko datan.

Aurreko hautapen-prozesu horien ezaugarri gisa, aipatu behar dugu guztietan lehia- eta publizitate-printzipioak aplikatu direla, SPRIN tresna-sozietateari egindakoaren salbuespenarekin, logikoa den bezala.

Laguntza-kontratuetan esleitutako zenbatekoak ehuneko 26ko baja ageri du lizitazio prezioaren aldean; portzentaje orokor hori ehuneko 6ra jaisten da obra-kontratuetan. Obren baja 1. lotetik heldu da guztiz.

SPRINi egindako enkarguari dagokionez, hasiera batean enkargatutako zenbatekoa aldaketa bidez 221.609 euroan handitu zen; guztira, 3,44 milioiko zenbatekora iritsi zen. 2011ko urrian, aipatutako enkargua azkendu zen, eta 2011ko irailaren 30era arte egindako gastuen likidazioa egin zen: 2,92 milioi izan ziren guztira; hau da, enkargatutako guztizkoaren ehuneko 85. Izaeraren arabera, honela xehakatzen dira gastu horiek:

SPRINen gastuak, 2011-09-30era arte	Zenbatekoa
SPRINen teknikariak	90.733
Aholkularitza teknikorako kontratua	491.392
Proiektua idaztearen eta obra zuzendaritzaren kontratua	1.923.627
Segurtasuna eta osasuna koordinatzeko kontratua	122.695
Bestelako laguntza teknikoak	43.651
Ekipo elektrogenoa	109.380
Komunikazio plana eta kiroldegia sustatzeko ekintzak	64.287
Beste gastu batzuk	74.819
Guztira	2.920.584

Enkargu horrez gainerako zenbatekoa –520.935 euro–, Institutuak erabili du bai subrogatutako laguntza-kontratuaren finantzaketarako, bai une horretara arte sozietateak egindako jardueretarako.

Esleitutako kontratuetatik likidatutako zenbatekoak, aurrerago hemeretzigarren ondorioan aztertzen dena, islatzen du bai berezko ziurtagirien zenbatekoa, bai sartutako kontratu-aldaketan bidezko igoe-rak, BEZaren tasan izandako aldaketaren³ eta esleipendunei zenbait arrazoi tarteko ordaindu zaizkien kalte-ordainen ondoriozkoak.

Egindako azterketatik, ondorioztatzen dugu ezen kontratazio-espeditente horien administrazio-izapidetzea eta haien esleipena, aldaketak eta exekuzioa, oro har, aplikatzekoa den kontratu-legedia betez egin direla.

Beste behin, Ganbera honek, ohartarazpen bat egin nahi du enpresa publikoei enkarguak egiteari buruz; izan ere, enpresa horiek, enkarguak betetzeko behar adina baliabide propio ez dutenez, kanpoan kontratatzen baitituzte enkargatutako lan ia guztiak.

Hemezortzigarrena. Kiroldegiaren eraikuntza teknikoki prozesu konplexua izan da, zeuzkan ezau-garriengatik; bereziki, eraikinaren moldakortasunarengatik eta plataforma eta harmaila mugikorrengatik.

Gainera, obraren kostuan eta jarraipenean eragina izan duten faktore batzuek ohartu gara. Hona-koak nabarmenduko ditugu:

- Obra proiektatu zenean eta haren aurrekontua egin zenean, ezezagunak ziren krisi ekonomikoaren sakontasuna eta iraupena.
- Aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzeari buruzko legezko betekizunek eragina izan dute eraikuntzan, batez ere eragin murriztailea izan baitzuten aurrekontu-zuzkiduretan; horrek, izan ere, bera-rekin ekarri zuen laguntza- eta obra-kontratuaren exekuzioa alde bakarretik luzatzea.
- Berezko eraikuntza-obrak hiru lotetan zatitzeak eta batzuen eta besteen arteko denbora-loturak beraiekin ekarri dute horietako batzuen exekuzioan antzemandako atzerapenek eragina izatea obra-multzoreen programazioan.

³ Lizitazio- eta esleipen-zenbateko guztiak BEZ indardunarekin –ehuneko 16a– kalkulatu daude.

- Aipatu den bezala, obren exekuzio materialaren aldian, bi aldiz aldatu da obrei aplikatu beharreko BEZaren tasa.
- Exekuzioan, erreklamazio eta errekurso ugari izan dira, izapidetzean, amaierako kostuan eta epeetan eragina izan dutenak, logikoa den bezala.

Faktore horiek guztiek eragina izan dute 2011ko lehen seihilekoan amaitzekoak ziren obra haueetan.

Aurreko lerroketan iruzkindutakoa kontuan izanda, ikusi dugu Institutuko eta Departamentuko zerbitzu teknikoek obren exekuzio materialaren jarraipen eta kontrol egokiak egin dituztela, eta horretarako informazio- eta dokumentazio-oinarri oso bat eduki dutela.

Hemeretzigarrena. Esleitutako kontratuen amaierako likidazioa.

Hurrengo taulan, aurreko kontratu horien likidazioaren amaierako zenbatekoa erakusten dugu:

Kontzeptua	Hasiera batean esleitutakoa	Esleitutakoa, aldaketekin (A)	Likidatutako gastua	Gastu-handitzearen %/(A)
Aholkularitza teknikoa	612.480	692.131	690.327	-0,26
Kalte-ordaina			193.009	-
<i>Aholkularitza teknikoa, guztira</i>	<i>612.480</i>	<i>692.131</i>	<i>883.336</i>	<i>27,63</i>
Obraren proiektua idaztea eta zuzendaritza	2.030.000	2.441.022	2.334.785	-4,35
Kalte-ordaina			596.950	-
<i>Proiektua idaztea eta obra-zuzendaritza, guztira</i>	<i>2.030.000</i>	<i>2.441.022</i>	<i>2.931.735</i>	<i>20,10</i>
<i>Segurtasunerako eta osasunerako laguntza</i>	<i>151.158</i>	<i>166.158</i>	<i>159.622</i>	<i>-3,93</i>
Laguntza teknikoko kontratuak, guztira	2.793.638	3.299.311	3.974.693	20,47
Ziurtagiriak	12.642.676	12.642.676	13.246.794	4,78
Atzerapenarengatiko zigorra			(238.684)	-
1. loteko kontratuaren guztizkoa	12.642.676	12.642.676	13.008.110	2,89
Ziurtagiriak	10.322.840	10.322.840	10.697.225	3,63
Kontratu-erantzukizuna			284.006	-
2. loteko kontratuaren guztizkoa	10.322.840	10.322.840	10.981.231	6,38
Urbanizazio-obren ziurtagiriak	4.033.275	4.060.638	4.112.080	1,27
Urbanizazioaren aldatetari buruzko epaia			184.539	-
Urbanizazioaren berandutza-interesak			8.960	-
<i>Urbanizazio-obrak, guztira</i>	<i>4.033.275</i>	<i>4.060.638</i>	<i>4.305.579</i>	<i>6,03</i>
Kiroldegiko II. fasearen ziurtagiriak	24.203.051	24.203.051	25.528.107	5,47
II. faseko domotikaren arloko hobekuntza	-	-	198.232	-
<i>Kiroldegiko II. faseko obrak, guztira</i>	<i>24.203.051</i>	<i>24.203.051</i>	<i>25.726.339</i>	<i>6,29</i>
3. loteko kontratuaren guztizkoa	28.236.326	28.263.689	30.031.918	6,26
Obra-kontratuak, guztira	51.201.842	51.229.205	54.021.259	5,45

Taula horretatik datu hauek nabarmenduko ditugu:

- Amaierako kostuak laguntza-kontratuen aldatutako esleipen-prezioaren aldean izan duen desbideratzea ehuneko 20,47koa da; kalte-ordainak kenduta, portzentajea negatiboa da: ehuneko -3,52. Balio negatibo horren funtsezko justifikazioa esleitzeko dauden obren gaineko laguntza-gastuak dira.
- Obra kontratuetarako, desbideratze hori ehuneko 5,45koa da. Gainera, kontuan hartu beharra dago obra horietan BEZak izan duen igoera; igoera hori milioi bat eurokoa dela kalkulatu da; portzentajea ehuneko 3,50koa izanen litzateke.

- Hasierako esleipenen gaineko kontratu-aldaketak ehuneko 18,10ekoak dira laguntza teknikoan; funtsean, justifikatzen dira obra unitate berriengatik eta bestelako lan batzuegatik. Obra-kontratuetan, aldaketa horiek ehuneko 0,053 eskas dira obretan.

- Kalte-ordainen, kontratu-erantzukizunaren eta berandutza-interesaren ondoriozko gastuek 1,27 milioiko handitzea izan dute; kopuru txikiago gisa, exekuzioan izandako atzerapenengatik zigorrak 0,24 milioi gutxitu dituzte gastuak.

Horrenbestez, uste dugu antzemandako desbideratzeak zitezkeen txikienak izan direla eta arazoizkoak direla, tamaina eta konplexutasun tekniko handiak dituen azpiegitura baten eraikuntza baita.

IV.6. KONTSERBAZIO- ETA MANTENTZE-GASTUAK

Hogeigarrena. 2009an landutako negozio- eta kudeaketa-ereduaren aurreikuspenei jarraituz, kiroldegiak, egunero funtzionatuz eta sozietate publiko nahiz pribatu batek kudeatuta, urtean 1,53 milioi euro inguruko ustiaketa-gastuak izanen litzuzke; horietatik, mantentzearen kontzeptuari 0,52 milioi legozkieke. Ustiaketa-gastu horien barruan, honakoak sartuko lirateke:

- Langile-gastuak, goi mailako lau langileren plantilla baterako.
- Mantentze-gastuak: konponketak, kontserbazioa, harmaila, pintura, argiteria, igogailuak, elektrizitatea eta beste.
- Telefono- eta fax-hornidura eta bulegoko materialarena.
- Publizitatea.
- Azpi-kontratazioak: garbiketa, segurtasuna eta zaintza eta beste.

Honela kuantifikatzen dira gastu horiek kiroldegiaeren ustiaketaren lehenengo bost urteetarako:

Ustiapen gastuak	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	5. urtea
Langileak	175.000	180.250	185.658	191.227	196.964
Mantentze-lanak	486.618	501.075	518.203	538.147	556.249
Hornidurak	35.000	36.050	37.132	38.245	39.393
Publizitatea	50.000	51.500	53.045	54.636	56.275
Azpi-kontratazioak	661.200	695.868	729.899	779.770	817.570
Ustiapena, guztira	1.407.818	1.464.743	1.523.936	1.602.026	1.666.451

Hogeigarrena. Gero, kiroldegiko obrak amaitzeko dagoen atzerapenaren aurrean eta haren irekiz-tze-datari erreparatuta, 2013ko urrian, behin-behinekoz, kontserbazio- eta mantentze-eginkizunak Nafarroako Kirolaren Institutuko Azpiegituren zuzendariordetzari esleitu zitzaizkion. Horretarako, eskema moduan deskribatu ziren exekutatu beharreko lanak eta Institutu bereko hiru langile atxiki ziren lanaldi partzialean, kontserbazio-lanak egiteko.

Hogeita bigarrena. Zenbait txostenen bitartez, kiroldegiko instalazioak funtzionamendu-baldintza egokietan mantentzeko beharrezkoak liratekeen gastuak aztertu ditu Institutuak, kiroldegia itxita eta erabili gabe dagoela jota. Horien arabera eta 2014ko eta 2015eko aurrekontu-informazioari jarraituz,⁴ honela kalkulatu dira kontserbaziora bideratutako zenbatekoak:

- 2012ko azaroko azterlana: 0,53 milioi, horren barne langile berekien gastuei buruzko ebaluazio bat dagoela, 0,1 milioikoa.
- 2014ko otsaileko azterlana. 0,4 milioi, langile berekien gastuei dagokiena jaso gabe.
- 2014ko aurrekontu-betetzea: 0,25 milioi, langile berekien gastuei dagokiena jaso gabe.
- 2015eko hasierako aurrekontua: 0,39 milioi, langile berekien gastuei dagokiena jaso gabe.

⁴ Nahiz eta 2013ko aurrekontuak mantentze-gastuegatik 0,15 milioiko exekuzioa ageri duen, gastu horiek urteko bigarren seihilekoari dagozkio guztiz.

Azken zenbateko hori denboran hurbilena denez eta egungo egoerari hobekien egokitutako kalkula jasotzen duenez, hurrengo taulan zehazten dugu haren edukia:

Kontserbaziorako aurrekontu-gastuak	2015
Segurtasuna-zaintza	98.845
Energia elektrikoa	105.000
Gas hornidura	10.000
Ur-hornidura	4.000
Gasolioa eta biomasa	4.000
Plataformen eta harmailen mantentzea	70.000
Garbiketa	5.000
Obra kontratuetan jaso gabeko unitateen mantentzea	50.000
Sare informatikoa	6.000
Askotarikoak	37.155
2015eko kontserbazioa, guztira	390.000

Aurreko zenbatekoan, ez dira sartzen kontserbazioko eguneroko zereginei atxikitako langileen gastuak. Institutuaren informazioen arabera, zeregin horiek, gaur egun, enplegatu batek eta arkitekto tekniko batek egiten dituzte, egunean hiru orduz, baina lanetan ez erregulartasunik, ez jarraitutasunik izan gabe; gure kalkuluen arabera, pertsona horien kostua –gizarte-zamak eta egoera pertsonalak alde batera utzita– 22.000 euro ingurukoa izanen litzateke.

Kontserbazio-lan horien garapena burutzen da, alde batetik, bitarteko propioekin eta, bestetik, kanpoko enpresekiko kontratuen bitartez. Hartara, enpresa horiei dagokienez, honakoak aipatu behar ditugu:

- Enpresa esleipendunaren kontratuak, 3. lotekoak, bere baitan hartzen du –eskaintzan proposatutako hobekuntza moduan– zortzi urterako mantentze-lana, baina ez kontserbazio-lana.
- Harmailen eta plataformen mantentzeari dagokionez, esleipen-kontratuan jasota dago, eta urtean behin egiten du enpresak. Ez dira kontserbazio-lanak sartzen; horiek, praktikan, ez dira egiten, instalazioen konplexutasun teknikoa dela eta.
- Garbiketa- eta zaintza-lanak esleituta daude.
- Gaur egun, zenbait mantentze-kontratu negoziatzen ari dira.

Horrenbestez, kiroldegiko obrak behin betiko amaitzeko datari eta irekitzeko datari buruzko zalan-zak direla eta, eta instalazio horiek itxita geratzeko hipotesiaren aurrean, gutxieneko mantentze-lan batzuk egin behar dira, instalazioak egoki mantentze aldera; are gehiago, horietako batzuen –bereziki harmaila atzeragarrien– konplexutasun teknikoa kontuan hartuta. Egindako kalkuluen arabera, lan horiek urtean 412.000 euro inguruko gastua edukiko lukete.

Hogeita hirugarrena. Halaber, Institutuak aztertu du aukerarik ote legokeen kiroldegia soilik ekitaldi jakin batzuetarako irekitzeko. Kasu horretan, honako gastuak egonen lirateke:

- Lehenbizi, beharrezkoak diren inbertsioak eta gutxieneko ekipamendua egitea: 1,19 milioi kalkulatu dira horretarako. (ikus zortzigarren ondorioa).
- Gutxienez ere arestian aipatutako kontserbazio-gastuak egin beharko lirateke.
- Ekitaldi horiek egitetik eratorritako gastu aldagarriak, zeinak, aztertutako aurreikuspenen arabera, ekitaldi horien antolatzaileek ordaindu beharko litzateke.

Gutxieneko inbertsio horiek eginda, ezin izanen litzateke kirol lehiaketarik egin –pilota partidak izan ezik–, kirol-ekipamendua ez baitago horren barnean.

Hogeita laugarrena. Kiroldegia irekitzeari buruzko erabakia zein den ere, gure iritziz plangintza eta programazio egokiak egin behar dira instalazioen mantentzeari eta kontserbazioari buruz: egin beharreko lanak zehaztu behar dira, bai eta haien egiteko egutegia, horretarako atxikitako langileak, kanpoan kontratatutako zerbitzuak eta lan horien zuzendaritzaz eta koordinazioaz arduratuko litzatekeen unitate/entitatea ere. Egindako inbertsio publikoak eta instalazioen konplexutasun teknikoak eskatzen dute gisa horretako jarduketara bat egin dadin, haiek egoki mantentze aldera.

IV.7. NEGOZIO- ETA KUDEAKETA-EREDUA

Hogeita bosgarrena. Funtzionamendu betean aritu behar zuen kiroldegirako 2009an landu zen negozio-ereduak zenbait kalkulu jasotzen ditu: egin beharreko ekitaldiak eta eguneroko funtzionamenduan jarri eta bost urteko aldian izanen liratekeen ustiaketa-gastuak eta diru-sarrerak.

Halaber, zehazten da kudeaketa-eredurik egokiena izanen litzatekeela instalazioak titulartasun publikokoak izatea eta haien kudeaketa sozietate publiko nahiz pribatu batek egitea, baina ez du egiten bi formula horietatik baten alde.

Halaber, aipatzen du antolamendu-egitura propio bat eduki beharra dagoela funtsezko jardueretarako eta zuzendaritzarako, eta gainerako jarduerak azpi-kontratutako liratekeela. Egitura horretan, lau pertsona egonen lirateke: kudeatzailea, administratzailea eta pistaren eta mantentzearen arduradunak.

Kalkulu horien arabera, kiroldegiaren kudeaketa funtzionamenduko laugarren edo bosgarren urtetik aurrera hasiko litzateke ustiaketa-emaiza positiboak ematen; bosgarren urtean, 80 ekitaldi inguru egiteko kalkulua zegoen.

Hogeita seigarrena. Kiroldegia eraikitzeke obrak amaitzen doazen neurrian, eta egoera ekonomiko orokorra dela-eta, beharrezkotzat jotzen da 2009an onetsitako ereduaren sendotasuna aztertzea, hura egungo baldintzei egokitzeko.

Hartara, 2012ko azaroan, Institutuak azterlan bat egin zuen, non, besteak beste aztertzen baita zein den kiroldegiaren egoera kontratatutako obra amaitzeko pronto dagoela: ekitaldi jakin batzuetarako ireki ahal izateko bete beharreko baldintzak aztertzen dira, hura guztiz amaitzea eta haren kudeaketa osoa egitea bidezkoak ez diren bitartean. Hartara, honakoa esaten da, funtsean:

- Jotzen da uste baino diru-sarrera txikiagoak izanen direla (publizitatean, VIP palkoetan, ostalari-tzan eta abarretan). Errentamenduen balizko politika bat aztertzen da, eta,aldi berean, Foru Komunitateko eliteko kirol taldeen egoera zailaren aurrean, goi mailako kirol ekitaldiak puntualki egiteko balizko demanda aztertzen da.

- Eraikinaren guztizko eta eguneroko ustiaketa baztertzen da, zeren eta ez baitago bermatuta oreka ekonomikoa lortzeko behar beste diru-sarrera edukitzea.

- Jarduera-lizentzia lortzeko, ezinbestekoa da kiroldegiari gutxieneko ekipamendu batzuk ematea, erabiltzailearen segurtasun nahiz erosotasuna eta funtzionaltasuna bera bermatzeko.

- Kudeaketa-ereduari dagokionez, honakoa proposatzen da:

a) Kiroldegiaren kudeaketaz batera arduratuko dira kontratatutako ekitaldiaren erantzuleak eta jabetzak.

b) Erakina Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, S.L.ri (NICDO) atxikiko zaio, instalazioaren gastu finkoak bere gain har ditzan.

c) Instalazioen ustiaketa eta merkaturatzea Institutuak eta aipatutako sozietateak eginen dituzte, beren baliabideekin edo/eta hirugarrenekin kontratatuta.

Azken batean, behin-behineko moduan, baterako kudeaketa-eredu bat proposatzen da, non instalazioen jabetza publikoa den eta haien kudeaketa sozietate publiko batek eginen duen. Institutuak bere giza-kapitala jarriko du eta sozietateak, berriz, kudeaketaren arloko arintasuna.

Praktikan, txosten horretan jasotako proposamenak ez dira gauzatu.

Hogeita zazpigarrena. Halaber, aipatutako Institutuak, 2012ko azaroan, "Kiroldegiarekin lankidetzan jarduteko proposamena" aurkeztu zuen. Asmoa zen instalazioetan interesa izan zezaketen enpresei aurkeztea, ekitaldiak antolatze aldera. Horretan, honakoak jasotzen dira, funtsean:

- Instalazioaren moldakortasuna, teknologia modernoa eta ekitaldiak aldi berean antolatzeko aukerak.

- Aurreikusitako lehenengo urteetan guztira 14 ekitaldi antolatzea kiroldegiaren (2 pilota-partida, 3 musika-ekitaldi, 5 kirol-ekitaldi eta bestelako 4 ekitaldi).

- Azterlan bat eta kuantifikazio bat egin ziren instalazioa alokatzeko prezioaz batera haren erabilgarritasun-gastuengatik jaso beharreko diru-kopuruari buruz, betiere egin beharreko ekitaldiaren eta kontratatutako aforoaren arabera.

- Gastu aldakorak ekitaldiaren tamainaren arabera finkatu ziren, eta zuzenean jasanaraziko zitzaizkion haren sustatzaileari.

- Amaieran, esaten da funtzionamenduko lehenengo urterako, 0,7 milioi inguruko gastuak eta 0,2 milioi inguruko diru-sarrerak kalkulatzeko direla. Gainera, eta proiektuaren guztizkotik kendu beharreko kopuru gisa, jarduera-lizentzia lortzeko egin beharreko inbertsioak egiteko gastua egin beharko da; aipatu den bezala, 0,65 milioikoak direla jo da.

- Halaber, publizitatearen arloan dauden aukerak aztertzen dira, bai eta babesleak edukitzeko aukera ere. Azken kasu horretarako, zenbait aukera aipatzen dira: finkatu gabe dauden abantaila fiskalak, babeslearen izena kiroldegiaren izenari gehitzea, instalazioaren izenaren ordean babeslearena jarzea, publizitate finkoa egotea, palkoen erreserba eta abar.

Praktikan, txosten horretan jasotako proposamenak ez dira gauzatu.

Hogeita zortzigarrena. 2014ko martxoan, gaiari berrekin zitzaien, eta horretarako lan-mahai bat⁵ eratu zen; haren helburua da honakoak definitzea: kiroldegiaren egungo egoera, haren ustiaketa-eredua –errentamendua, zuzeneko kudeaketa, sozietate publiko baten bidezko kudeaketa...–, dagoen eskaria, ustiaketarako estrategiak, balizko negozio-ildoak eta eskain daitezkeen zerbitzuak.

Bilerak egiten ari dira enpresa pribatuekin, bai ideiak biltzeko, bai kiroldegiaren ustiaketarako lankidetz-formulak bilatzeko.

Hogeita bederatzigarrena. Horrenbestez, honela laburbil dezakegu negozio- eta kodeketa-ereduaren egungo egoera:

- Egungo testuinguru ekonomikoan eta aurrekontu-murrizketen egoeran, Nafarroako Gobernuak jotzen du ezin direla guztiz amaitu kiroldegiko obrak, proiektuaren zehaztapenei jarraituta.

- Ez da zehaztu haren ustiaketa- eta kudeaketa-eredua.

- Sektore pribatuarekiko lankidetz-formulak bilatzen ari dira instalazioak errentagarriagoak izan daitezen.

- Ez dago kiroldegiaren irekitze-datari buruzko aurreikuspenik, ezta ekitaldi jakin batzuetarako irekitze-ereduan ere.

IV.8. KIROLDEGIAREN KUDEAKETA-EREDUARI BURUZKO AUKEREN AZTERKETA

Hogeita hamargarrena. Kiroldegiaren kudeaketa-eredurako aukeren azterlana dela-eta Parlamentuak egin duen eskariari jarraituz, Ganbera honek, funtsean, honako aukerak aipatzen ditu:

a) Administrazio publikoak osoko kudeaketa egitea. Kirolaren Institutuak hartuko lituzke instalazioen titulartasuna eta haien kudeaketa. Horren abantaila nagusiak dira instalazioak ondare publikoaren barruan gelditzen direla eta baliabide publikoei eta zerbitzuaren kalitateari buruzko kontrol exhaustiboa egiten dela. Egungo murrizketen egoeraren aurrean, alde txarrak dira egin beharreko inbertsioen eta gastu finkoen finantzaketa eta, printzipioz, horrelako instalazioen kudeaketan espezializatutako langileak kontratatzeko edo edukitzeko beharra.

b) Sozietate publiko batek –zehazki NICDOK⁶– kudeatzea. Titulartasuna ondare publikoaren barruan geratuko litzateke, eta kudeaketa sozietate publiko horri enkargatuko litzaike. Kasu horretan, kudeaketa merkataritza-sozietate publiko batek egiten du, eta horrek, printzipioz, eraginkortasun eta arintasun handiagoak ematen dizkio; halaber, aisiako eta kulturako espazioen kudeaketa zentralizatu batetik sortzen diren eskalako ekonomiak aprobeitza litezke. Alde txar bezala, honakoak daude: erabiltzen hasteko egin beharreko inbertsioaren zenbatekoa; gastu finkoak ordaindu behar izatea eta, ustez, langileak kontratatzea.

⁵ Gizarte Politiketako kontseilariak du mahai horren lehendakaritza eta Kirolaren Institutuko eta CPEN eta NICDO sozietate publikoaren ordezkariak eta arduradunak osatzen dute.

⁶ Helburu soziala da, funtsean, gaiaz gaiko azpiegiturak eta kultura-, aisia- eta kirol-azpiegiturak kudeatzea.

c) Zeharkako kudeaketa. Indarrean dagoen kontratu- eta ondare-leggedian bildutako zeharkako kudeaketa-formuletatik edozein erabilita, instalazioen kudeaketa eta ustiaketa, urte kopuru jakin batez, esleipen-hartzaile batek hartuko litzuke bere gain, nahiz eta haien titulartasun publikoari eusten zaion. Gainera, esleipen-hartzaileak ordaindu beharreko prezioa dela-eta, hainbat aukera leudeke; besteak beste, prezio sinboliko bat exijitzea. Horren alde txar nagusia da enpresa interesdun hori aurkitzea. Abantaila, berriz, izanen litzateke arloan espezializatuta dagoen entitate batek kudeatuko litzuzkeela instalazioak, eta erabakiak hartzerakoan malgutasun handiagoa egonen litzatekeela. Kasu horretan, kontratuan jaso litezke bai jardueraren gaineko kontrol publikoko mekanismoak, bai funtzionamenduan jartzeko egin beharreko inbertsioen finantzaketa aurreratua.

d) Kudeaketa mistoa edo kudeaketa zuzenaren eta zeharkakoaren konbinaketa. Hau da, instalazioen titularitate publikoari eutsita, instalazio horiek kudeatu ahalko lirateke formula zuzenen eta zeharkakoaren konbinaketa baten bitartez; hau da, instalazioen edo/eta jardueraren zati bat administrazio publikoak edo sozietate publiko batek kudeatuko litzuzke, eta beste zatia, berriz, zeharka kudeatuko litzuzteke, kontratazio bidez. Hartara, esate baterako, administrazio/sozietate publikoa arduratuko litzuzteke instalazioaren funtzionamendua zuzentzeaz eta koordinatzeaz; sektore pribatua, berriz, haren ustiaketa eta jarduera osagarrien kudeaketaz arduratuko litzuzteke. Aukera horren alde on eta txarrak dira, laburbildu, aurreko puntuetan aipatutakoak. Alabaina, aukera horretan, jabetzak egin beharreko koordinazio lanek zorrotzagoak izan behar dute, erabakiak hartzerakoan erantzukizunak lausotzeko arriskua saiheste aldera, besteak beste.

e) Azpiegitura saltzea. Alde on nagusia litzuzteke Administrazioak ez litzuzkeela eginen falta diren inbertsioak, eta ez litzuztekeela ustiaketa eta kudeaketaz arduratuko. Alde txar nagusia litzuzteke, 60 milioi inguruan baloratutako ondare publiko bat galtzeaz gainera, salmenta-prezio arrazoizko bat finkatzeko zailtasuna, merkatua ia existitu ere egiten ez baita eta inbertsio pribaturako erakargarritasun eskasa duelako.

Jotzen dugu a) eta b) aukerak liratekeela egokiak kiroldegia puntualki irekitzeko. Instalazioa guztiz irekitzeko kasuan, eta egungo aurrekontu-zailtasunei erreparatuta, c) eta d) aukeren errentagarritasun sozial eta ekonomikoa aztertu beharko litzuzteke.

IV.9. AMAIERAKO ONDORIOA

Reyno de Navarra Arena kiroldegia balio anitzeko, erabilera anitzeko eta funtzio anitzeko azpiegitura bat da, zeinak ez baitu balio soilik kirol-beharretarako. Moldakortasun handia, goi mailako teknologia eta ikusle kopurua kasuko ekitaldiaren arabera egokitzeko gaitasuna dauzka.

Haren diseinua egin zen krisi ekonomikoaren sakontasuna eta finantza publiko eta pribatuetan izan zuten ondorioen norainokoa ezagutzen ez ziren garaietan.

Hartatik eta aurrekontu-egonkortasunaren betekizunak betetzetik heldu diren murriztapenek berai-ekin ekarri dute instalazioaren eraikuntzan nabarmen atzeratzea –hasiera batean 2011ko lehen hiruhilekorako aurreikusita zegoen– eta hasierako proiektua guztiz exekutatu gabe egotea. Halaber, horrek eragin du kontratuen esleipen-hartzaileei kalte-ordain batzuk ordaindu behar izatea.

2014ko abenduaren 31ra arte, azpiegiturak 54,29 milioiko kostu argia izan du Nafarroako Gobernuarentzat.

Oraindik exekutatzeko daude 6,23 milioi egiten duten obrak; horietatik, guztira 2,3 milioi geroratu dira inguruabar ekonomikoak aldekoak izan arte; gainerakoak beharrezkotzat jotzen dira kiroldegia funtzionatzen hasteko.

Kontratazio prozedurei buruz egindako azterketaren arabera, ikusi da, oro har, aplikatzekoa den kontratu-araudia bete egin dela. Halaber, egiaztatu dugu Institutuko zerbitzu teknikoek obren gaineko kontrol eta jarraipen egokiak egin dituztela. Horrek guztiak aukera eman du kontratuen esleipen-batekoei buruzko desbideratzeak oso txikiak izateko, aipatutako ezaugarriak dauzkan azpiegitura baterako.

Kiroldegiaren diseinuarekin batera 2009an landu zen negozio- eta kudeaketa-eredua desfasatuta geratu da, eta egungo inguruabar sozio-ekonomikoek gaitututa dago.

Hartara, gaur egun, Nafarroako Gobernuak baztertu egin du, errentagarritasun ekonomikorik ez duelako, kiroldegiaren ustiaketa osoa; jotzen da haren kontserbazio-lanetarako 0,4 milioi inguruko aurrekontu-beharrak egonen liratekeela urtero. Azken alderdi horri dagokionez, kiroldegiaren goi mailako

teknologia aipatu beharra dago, zeren eta egoki planifikatutako eta programatutako mantentzea exijitzen baitu.

Kudeaketa-ereduari dagokionez, haren ustiaketari errentagarritasun handiena aterako dioten aukerak edo formulak aztertzen ari dira.

Laburbilduz, Kontuen Ganbera honen iritziz, obrak amaitzeari, azpiegituraren kudeaketa-ereduari eta irekitze-datari begira egun dagoen behin-behinekotasun fase hau behin betiko gainditu beharra dago, eta errentagarritasun sozial eta ekonomiko handiena ematen duten soluzioak bilatu behar dira. Ildo horretatik, egun dauden aukerak aztertu behar dira, bai esparru publikoan, bai pribatuan, hainbesteko bolumen ekonomiko duen inbertsio horrek bete ditzan gizarteak daukan eskaria; azterketa horretan ez dira baztertu behar ez haren itxiera, ez kudeaketa publiko edo/eta pribatua, ez eta haren balizko besterentzea ere. Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharrekoak dira izaera eta tamaina horretako azpiegitura baten ustiaketak sektore pribaturako dauzkan zailtasun ekonomikoak eta errentagarritasunekoak; hori dela eta, nekez hartuko du bere gain sektore horrek bere partaidetza, harekin batera Administrazio publikoak laguntza-neurririk hartzen ez badu.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2015eko apirilaren 9an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

2015eko martxoaren 23an jaso dugu Nafarroako Kontuen Ganberak aipatutako gaiari buruz egindako behin-behineko txostena, eta alegazioak aurkezteko emandako epean, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak honakoak adierazi nahi ditu:

Lehenbizi, eskerrak eman nahi dugu ente fiskalizatzaileak gai hau dela-eta –konplexutat jo du berak ere– erakutsi duen jarrera onarengatik. Gainera, lankidetzaren estua nabarmendu beharra dago, txosten hau egiteko ez ezik, aurreko txostenetan egindako berrikuspen guztietan ere, aipatu bezala.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Kontuen Ganberako auditoria-langileei beren jarrerarengatik eta lankidetzarengatik, bai eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko Azpiegituren Zuzendariordetzari ere, lan hau egiteko egin duten ahaleginarengatik.

Bigarrenik, aipatu behar dugu ezen, orokorrean, bat gatz txostenean zehar nabarmendutako prozeduren eta kalkuluen deskribapenekin, Alabaina, ondoren, honako gogoetak egin nahi ditugu:

1. Ase nahi diren beharrezkoen analisian edo azterlanak

Txostenean zehar proiektuaren izapidetze administratiboko dokumentazioari eta mugarriei buruzko analisi xehea egiten den arren, Kirolaren Plan Estrategikoa dela-eta Nafarroako Parlamentuak onetsitako agiria-aren aipamena falta da; izan ere, hartan, azpiegitura honen eraikuntzari buruzko berariazko ekintza bat jaso zen. Proiektua hasi eta ondorengo agiri bat dela aitortu beharra badago ere, bai haren lanketan parte hartu zuten kirol-eragileek, bai esku hartu zuten parlamentu-taldeek gehiengoz onetsi zituzten bai ekintza hau, bai beste batzuk ere.

2. Ordaindutako kalte-ordainak

Laguntzak direla-eta eman diren kalte-ordainak dagokionez, adierazi beharra dago ezen, txostenean aipatzen den arren haiek zerbitzuak luzatzearen eraginez ordaindu behar izan zirela, ordaindu ezean, Administrazioak aberasten bidegabea izan zezakeela, haiengandik behar baino zerbitzu handiagoak eskuratzearen ondorioz.

3. Kontratu nagusiak

Hamazazpigarren ondorioan ageri den taulan, lehenengo lerroan Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren kontratua eta SPRINen enkargua aipatzen dira.

Baina ondoren, sozietate publikoak berak enkarguaren barruan egin zituen esleipen prozedurak xehatzen dira. Ez dira kontratu horiek nahastu behar, egindako enkarguaren prozedura independenteak baitira.

4. Enpresa publikoari egindako enkarguen esleipena

Gomendio hau jada Kontuen Ganberak Administrazio honi egindako lehenagoko txosten batzuetan ageri zen, eta, besteak beste, SPRIN sozietate publikoari egindako enkargua deuseztatzea ekarri zuen, Institutu honek berak bere gain hartuta kontratu-posizioa, SPRINek kiroldegia zela-eta ematen zituen laguntza teknikoetan.

5. Kontserbazio-zereginak

Instalazioaren egungo egoerari dagokionez txostenak dioena dela-eta zehaztu beharra dago Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko langile berekiak ari direla eraikinaren eta haren instalazioen kontserbazio zereginak. Zeregin horiek, funtsean, datza haiek funtzionatzeko moduan kontserbatzean.

Gainera, instalazioen mantentze prebentibo eta zuzentzaileari dagokionez, aipatu beharra dago ezen, alde batetik, haietatik zati handi bat sartzen dela 3. lotearen esleipena hartu zuen enpresak eskainitako hobe-kuntzaren barruan; alabaina, beste batzuek kontratazio bat eskatzen dute, geroko mantentzeari begira.

6. Azpiegitura saltzea

Proposamen horri dagokionez, dei bat egiten da ezer baino lehen azter daitezen Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuari lurzatia lagatzeko hitzarmenean adierazitako baldintzak.

Iruñean, 2015eko martxoaren 30ean

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea: Pruden Indurain Larraya

NAFARROAKO KIROL ETA GAZTERIAREN ZUZENDARI KUDEATZAILEAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBARAK EMANDAKO ERANTZUNA

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak aurkeztutako alegazioak aztertu ditugu, eta behin-behineko txostenaren ondorioak aldarazten ez dituztenez, txosten hori behin betikotzat jotzea erabaki dugu.

Iruñean, 2015eko apirilaren 9an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

